

## Zaldibar: tragediatik fartsara



**IÑAKI BARCENA**  
EKOLOGISTAK MARTXAN  
TALDEKO KIDEA

**K**arl Marx: "Historia bi aldiz gertatzen da. Lehena tragedia handia bezala eta bigarrena fartsa ziztrina bezala". Ez da metafora makala, zarama-politikoan pairatzen ari garena ulertzeko.

**Tragedia (Artigas).** Pilar Careaga Bilboko alkate faxistak, 1974an, udalerriko ertzean eta mendi aldean, Alonsotegitik gertu, zabortegi bat ezartzeko agindu zuen. Inguruko 5.000 lagun sinadurei eta bizkaitarren protestei halaxe erantzun zien: *"Mi dimisión está por encima de la opinión del pueblo. Yo me debo a una superioridad... Arreglados estábamos los alcaldes si dependiésemos de estas cosas"*. Argiago ezin! Ia 50 urte pasa eta gero zabortegiak bertan jarraitzen du, bizirik. 2014tik Bizkaiko Aldundiak kudeatzen du eta 2005ean, bere ondoan *Zabalgarbi* erraustegia ezarri zuten. Artigasi tokatu zaio bizkaitarren kakaleku handiena izatea, gaurko ingurumen-agintariak alkate frankistaren ildoari jarraituz.

**Fartsa (Zaldibar).** Duela gutxi, Bizkaiko txoko toxiko honetatik Eitzagara, Ermua gaineko beste puntara joan da zaramaren kiratsa. Zaldibarko lurra dira baina Artigas eta beste zabortegietan bezalaxe, "inpaktuak", hots, isurketak, hatsak eta kamiokadak udaletxetik ia ez dira nabaritzen. Dirua bai. Batzuek diotenez zaborren negoziotan, garbiena zaborra da.

Zaramaren "balorazioa" dugu gako nagusia, nire ustez. *Verter Recycling* enpresak dioenez haiek *"valorizar los residuos que actualmente tienen como único destino depositarlos en vertedero"* egiten dute. Akzionista bi eta sei langile.

Datuen arabera, 2017. urtean 379.689 tona bildu zituzten eta 7.230.851 euro fakturatu. Atera kontuak. Zergak eta gastuak kenduz gero 1.744.876 euro libre. Urte berean Eusko Jaurlaritzak diru gutxiago dedikatu zuen hondakinen kudeaketarako hiru herrialdeetan. 2018an eta 2019an 540.667 eta 510.994 tona izan ziren. Irabaziak oraindik ez dira eskuragarri baina istripuak eragindako kalteak nork ordainduko ditu?

Euskal ekologismoak duela mende erditik, herrialde guztietan, zarama politika ustelak salatu ditu. *Gutxitu, berreskuzatu, berziklatu* leloa aspalditik lapurtu ziguten. Hondakinak ez dira gutxitzen prezio (truke balioa, ez erabilera) oso altua dutelako. Eta batzuen etekin ekonomikoa, guztion osasuna baino lehenagoa da, antza. Koronabirusaren pandemiak ageri-agerian jarri du.

Osasunak eta zaramak kudeaketa publiko eta gardenaren beharra dute. Fartsarik ez. Zaldibar argitu eta betirako lurperatu! ●

## Jaten dugunaz



**CASTILLO SUÁREZ**  
IDAZLEA

**K**onfinamendua hasi zenean, uste nuen etxea goitik behera txukundu nuela, ingelesezko *workbook* bukaturko nituela, apalategian nituen irakurri gabeko liburuei helduko niela, aspaldiko lagunei telefonoz deituko niela... Susmoa daukat erdibidean geratuko naizela. Galiziatik ekarritako galegozko poema liburuak irakurri bai, baina uste dut berdin gisan irakurriko nituela askatasuna deitzen dugun horretan. Beharbada nire kirola egiteko gogo falta estaltzeko, krisialdia hasi eta egin nuen lehendabiziko gauza kafea uztea izan zen. Ondotik gazta eta azu-

krea. Lehendabiziko egunetako buruko mina pasatuta, janaria prestatzen hasi nintzen. Nire bizitza osoan baino denbora gehiago eman dut sukaldean egunotan. Ondorioz etorri zen *Zer jan, halako Baztan*-eko bideoen zale amorratua egitea, eta nola ez, Elbeteko ostaturako Belen Urrutiarena. Ez dakit zerbait ona aterako dugun honetatik, noiz bueltatu ahal izanen garen Elbeteko ostatura paseo bat ematen Elizondoko plazatik, baina nik askoz ere tentu handiagoz erosten dut jaten dudana. Jaten dugunak asko esaten du garenaz, eta, zer esanik ez, izan nahi dugunaz. ●